

Nazioarteko Behatokia

Uztaileko edizioa


**basque trade &
investment**

Bilbo, 2021eko uztailak 30



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Aurkibidea



1. Ekonomiaren susperraldirako eta COVID-19aren pandemiatik irteteko bidea

2. Nazioarteko merkataritza

3. “At a glance”


- Hidrogeno berdea, energia sektoreko apustua
- Industriako lehengaien prezioak errekor historikoetara iritsi dira
- Mikrotxipen eskasia eta horren ondorioak automozioaren industrian

4. Perspektiba geografikoa

5. Perspektiba sektoriala

I. eranskina. Makro datuak

1. Ekonomiaren susperraldirako eta COVID-19aren pandemiatik irteteko bidea




Susperraldi ekonomikoaren aurreikuspenak hobetu egin dira 2021erako, nahiz eta kezka handiagoa dagoen kasuen hazkundeagatik...

Txertaketa-erritmoa azkartuz doa mundu osoan, eta txertatuta dagoen jende kopurua handiagoa da COVID-19az infektatutako kopurua baino.



Txertaketa. Txertaketa asko azkartu da herrialde guztietan azken bi hilabeteotan, eta zenbait herrialdek dagoeneko immunizatuta dute euren biztanleriaren % 50 baino gehiago, edo hurbil dabilta portzentaje horretatik. Txinak 1000 M dosi baino gehiago eman ditu dagoeneko. **COVID pasaporteak** eta txertaketak nazioarteko mugikortasuna berrabiarazi dute.


Dosi bat eta bi dosi jaso dituzten biztanleen %



Azken 14 egunak (guztizkoa uztailaren 22tik)

Baieztatutako kasuak	+ 5,1M (192M)
Tratamenduan daudenak	+0,33M (46M)
Sendatutakoak	+4,7 (173M)
Hildakoak	+0,0566M (4,13M)

Emandako txertoak (milioika)




Itxialdiak. Israel eta Erresuma Batua **lehengo normaltasunera** itzuli dira; aldiz, beste kontinente batzuetan Estatuak neurri zorrotzagoak kudeatzen ari dira andui berrien zabalkundeari eusteko. Testuinguruari begiratuta, eszenatoki globalak datu itxaropentsuak eskaintzen dizkigu txertaketari eta ospitaleetako presioari dagokienez. Adituek behin eta berriz diote egoeraren kontrola mantendu beharra dagoela jende gazteena txertatzen hasi ahala. Israel eta beste hainbat herrialde txertoaren **hirugarren dosia** ematen hasi dira, eta horrek sendotu egin ditu sektore farmazeutikoak andui berriekiko eraginkortasuna hobetzeko egin dituen proposamenak.

... eta 2021erako aurreikusitako hazkunde ekonomikoa handiagoa izango da (+ % 0,1)

Aurreikusitakoa baino azkarrago irtengo gara COVID-19ak sortutako krisitik, baina irteera horrek abiadura desberdinak izango ditu toki batzuetan eta besteetan; Asia izango da ekonomikoki suspertzen lehena, eta krisia baino lehen ahul zeuden ekonomiak (garapen bidean daudenak) okerrago ibiliko dira.




Hazkunde ekonomikoa. EBren kalkuluaren arabera, ekonomia pandemiaren aurreko mailara itzuliko da 2021eko 4. hiruhilekoan, eta Europan zein Amerikan goranzko aurreikuspenak egiten ari dira behin eta berriz. Aldiz, Asia Ekialdeko susperraldiaren erritmoa moteltzen ari da (Txinarena salbu), txertoen hornikuntzan dituzten mugengatik eta kutsatzeen goraldi berriagatik. Inflazio-arrisku handia dela-eta, espero da banku zentralek apal mantenduko dituztela interes-tasak 2021-2025. urteen artean.



Abiadura desberdinak. Asiako herrialdeak dira susperraldi ekonomikoaren buru (Top 5 zerrendako herrialde guztiak asiarrak dira), txertaketa-programen erritmoaren ondorioz. Europako zenbait herrialde ere sendo sartu dira lehen postuetan, esaterako Italia (sei postu gorago jarri da), Norvegia (postu bat gorago) eta Polonia (bost postu gorago). Estatu Batuak ere abiadura onean doaz (zazpi postu gorago), eta Frantziak (zazpi postu gorago) edo Espainiak (bost postu gorago) ere hobera egin dute, pizgarri ekonomikoaren pakete handiei esker.

BPG nominala (mila euro)


Ranking GlobalData de recuperación económica



Desberdintasun handiagoa. Badirudi susperraldi ekonomikoa estuki lotuta dagoela txertaketarekin, eta aurreikuspenek diote egungo txertaketa-erritmoari eusten bazaio 290 egun beharko direla munduko biztanleria osoa txertatzeko. Estatu Batuek, Erresuma Batuek, Kanadak, Alemaniak edo Espainiak dagoeneko txertatuta daukate euren biztanleriaren % 50, gutxienez dosi batekin, baina beste batzuek –esaterako Indiak– iragarri dute ez direla txertaketa masibora iritsiko 2022. bukaera aldera arte, eta horrek euren susperraldi ekonomikoa atzeratuko du.

Azpiegituretako inbertsioa da susperraldi ekonomikoko motor globaletako bat

Gobernuek iragarri dituzten inbertsio-plan handiek handitu egin dute proiektuen *pipeline* globala, bereziki azpimarratzekoak direlarik garraio eta energia arloetako azpiegiturek.



Iturria: Fitch Solutions



Informazio gehiagorako, jarri harremanetan
Basque Trade & Investment Agentziarekin

Inbertsio-sektore nagusiak (ekaina-uztaila)



Garraioa. Suediak hazkunde sendoa izan du ibilgailu elektrikoak birkargatzeko azpiegituren zabalkundean. Horrelako ibilgailuen parkea 211.000ekoa izan da 2020an eta 3,2 milioi ingurukoa izango da 2030ean. Ugandan, arrisku operatibo handiek mugatuko dituzte burdinbideen sektorean elkarte publiko-pribatuak sortzeko aukerak. Mendebaldeko Europan, arrisku handia dago aireportuetako proiektuetan eta energia sektoreko azpiegitura konplexuetan.




Energia. Hidrogeno berdearen sektoreak hazkunde aukera handiak izango ditu Asian. Eguzki energia izango da eskualdeko hazkundera bultzatuko duen motorra. Ipar Amerikan eta Europan, eskala handiko ahalmena oso azkar haziko da eguzki energiaren segmentuan; energia eolikoaren segmentuak bere nagusitasuna mantenduko du sorkuntzari dagokionez, eraginkortasun handiko itsasoko proiektu eolikoaren ugaritasunak lagundurik.



Ura. Kuwaitek berrerabilpenaren aldeko apustua egingo du bere baliabide hidrikoak ahalik eta ongien aprobetxatzeko. Mexikok bere azpiegiturek hobetu behar ditu estres hidrikoari eta klima aldaketari aurre egiteko.

2. Nazioarteko merkataritza





Nazioarteko merkataritza azkar suspertuko da, baina baditu arrisku batzuk...

Ziurgabetasun handia, mugikortasun murrizketak eta industriako lehengaien prezio altuak gorabehera, Europako ekonomia sendo dago txertaketaren erritmoa azkartu ondoren, eta susperraldi ekonomikoan sartzen ari da.



- **Aurreikusten da merkataritza % 8 suspertuko dela 2021ean, 2020ko % 8,1eko beheraldiaren ondoren.** Asiako merkataritzaren susperraldiak –Txina gidari duela– erritmo desberdinak daramatza, eta Taiwan zein Hego Koreako (biak erdi-eroaleen ekoizle garrantzitsuak) agerraldi berriek agerian jarri dute mundu mailako hornikuntza-katearen zaurgarritasuna. Lehengaien prezioak gora egitearekin batera, aurreikusten da Latinoamerika bere lehengo bolumen komertzialetara itzuliko dela datozen hilabeteetan. Zerbitzuetako merkataritza-mailak ez dira guztiz suspertuko 2022ra arte, Estatuak turismoa eta bidaiak mugatzeko ezarri dituzten politika murriztaileen ondorioz.




- **Covid-19aren aurkako txertoen zabalkundeak neurri protekzionisten arriskuak handituko ditu epe laburrean,** eskaera eskaintza baino askoz ere handiagoa baita. AEBek aurrekari bat ezarri dute txertoak ekoizteko behar diren lehengaien bidalketa eten dutenean. Indiak, bere aldetik, debekatu egin du bertan egindako txertoak esportatzea, handitu egin delako kutsatuen kopurua bere mugetan. Testuinguru orokorrak agerian utzi ditu azkenaldiko jarrera protekzionistak.



- **Pandemiak eztabaida ugari sortu ditu globalizazioaren etorkizunari buruz,** eta hornikuntza-kateko behin eta berriroko etenaldiek deslokalizaziorako deialdi bat eragin du, agerian utzi baitu Txinarekiko gehiegizko menpekotasuna. Mundu mailako lotura komertzialak hobetzeko ahaleginek konplikatu egingo dituzte hornikuntza-katea berregituratzeko ahaleginak; izan ere, gobernuen dirulaguntzen bitartez susperraldi ekonomikoa bultzatzeko laguntza-programa fiskalekin batera, jarrera protekzionistak sustatzen dituzte eta inportazioak ezabatzeko nahiz lehia desleiala sortzeko arriskua handitzen dute.



- **AEBen eta Txinaren arteko tentsioa handitu egin da pandemiaren erdian;** Biden-ek ez du aldatuko Txinarekiko jarrera, eta epe laburrean ez ditu kenduko muga-zerga komertzialak, ez eta berriki Txinako enpresei ezarritako finantza, teknologia eta inbertsio arloko debekuak ere. Aldebiko harreman horrek behartu egin ditzake hirugarren merkatu batzuk bi alderdietako bat aukeratzera.



...egungo susperraldi ekonomikoaren eszenatokia aldatu lezaketenak

Hainbat arrisku daude, probabilitate maila desberdinekin, egungo oreka ekonomiko globala aldatu dezaketenak eta eragina izan dezaketenak munduko ekonomia guztietan.

Ekonomikoak

- Eskeraren susperraldiak eta lehengaien prezioaren gorakadak **inflazioa handitu** dute mundu osoan. Horrek berekin ekarri du moneta-politikak gogortzea eta burtsa-merkatuaren higadura, arriskua sortuz atzeraldi bikoitz bat jasateko.
- **LPEE+ren politikekiko desadostasunek eta petrolioaren prezioaren gorakadak berekin ekarri dute AEBek Irango petrolio esportazioei ezarritako zigorrak altxatzea** aurreikusitakoa baino lehen (2021aren amaieran), erreserba gaitasun handia duelako (1,8 milioi upela/eguneko). Iranek ez badu onartzen LPEE+ren ekoizpen politika, gerta liteke munduko petrolio eskaintzak sekulako gorakada izatea eta, horrekin batera, prezioek behera egitea eta petrolioaren beste krisi bat sortzea, horrek ekonomia globalean izango lukeen inpaktuarekin.

Txina-AEBak

- **AEBak eta Txina gero eta urrunago daude elkarrengandik**, eta horrek merkatuak (eta enpresak) behartzen ditu alderdi bietatik bat aukeratzera. Enpresek estandar teknologiko desberdinak bete behar dituzte hornikuntza-kate bakoitzean. Egoera horrek atzeratu egin lezake 5G teknologiaren ezarpena zenbait herrialdetan, AEBek Txinako teknologiari ezarri dioten blokeoaren ondorioz.
- **Nazioarteko gatazka bat lehertu da Txina eta Taiwanen artean, eta AEBek tartean sartu behar izan dute.** Txinak Taiwanekin agertu duen erasokortasun gero eta handiagoak gatazka militar bat pizteko arriskua handitu du. Taiwango presidentek uko egin dio independentzia helburu politiko esplizitu bezala adierazteari. AEBen eta Taiwanen arteko harremanak estutu izanaren ondorioz, Txinak aldiro egiten ditu erasoak Taiwango lurraldean eta horrek handitu egin du herrialde bien artean gatazka bat sortzeko arriskua. Taiwanek izan lezakeen edozein gatazkak ondorio zuzenak izango lituzke munduko hornikuntza-kateetan, denek dutelako hango erdi-eroaleen industriarekiko menpekotasuna.

COVID-19


- **Txertoarekiko erresistenteak diren COVID-19aren aldaera berriak agertu dira**, eta ezinezkoa da agerraldi berriak kontrolatzea, herrialde gehiegi baitaude atzeratuta txertaketa prozesuan. Ondorioz, txertaketaren, txertoen eguneraketaren eta neurri murriztaileen ziklo amaigabe batean sartu gara egoera pandemikoarengatik. Etengabeko pandemia honek ekarri duen diru-sarreraren beherakadak ezegonkortasun soziala sortzeko arrisku handiagoa dakar, baita tradizionalki egonkorrak izan diren estatuetan ere. Ezkutuko tentsioak eta ekonomia zaugarriak dituzten herrialdeek arrisku gehiago dute inbertitzaile eta kapital ihesak eragindako desegonkortasunak jasateko.

Zibererasoak

- **Estatu arteko zibergerrek** ekonomia garrantzitsuenetako Estatu-azpiegiturak geldiarazi ditu, ekonomia nagusien arteko haustura diplomatiko bat gertatzeko arriskua handituz. Gainera, horren ondorioz ugaldtu egin dira Estatu-azpiegiturak kontrolatzen dituen softwarearen aurkako zibererasoak.

3. At a glance

- Hidrogeno berdea, energia sektoreko apustua
- Industriako lehengaien prezioak errekor historikoetara iritsi dira
- Mikrotxipen eskasia eta horren ondorioak automozioaren industrian



Gobernuek susperraldi ekonomiko jasagarriaren aldeko apustuari eutsi diote, eta Hidrogenoa izango da horretarako bultzatzaile nagusietako bat

Hurrengo hamarkadan, hidrogeno gasaren eskaera globala nabarmen haziko da, gero eta gehiago aplikatuko baita garraioan, energia industrialean, etxeko berogailu nahiz sukaldeetan eta energiaren sorkuntzan


- **Hidrogeno berdeak gidatuko du ekoizpen-proiektuen pipeline-a, 72GWeko gaitasunarekin plangintza edo garapen fasetik hasita.**

Deskarbonizazio plan handinahitsuek eurekin ekarri dituzte hidrogeno urdina (gas naturaletik eratortzen dena) eskala komertzialean garatzeko planak, karbonoa atzeman eta biltegitatzeko proiektuak, eta elektrolisi prozesu baten bidez eta energia berriztagarriak erabiliz **hidrogeno berdea** sortzeko ekimenak. Hidrogeno urdinaren arloko proiektuak merkatu oso zehatzekin lotuta daude, hala nola, Kanada, Norvegia, Erresuma Batu edo Herbehereetakoekin, baina gutxieneoak dira; iragarri diren 80 proiektuetatik gehienak hidrogeno berdearen arloko proiektuak dira (76).

- **Asia, Ipar Amerika eta mendebaldeko Europa izango dira hazkundearen gidari datorren hamarkadan.** Proiektuen % 49 Asian zentratzen dira; aldiz, 2030a baino lehen bukatzekoak diren proiektu gehienak mendebaldeko European egingo dira, 30 guztira (Asian 11 daude). Espero da AEBek laster abiaraziko dituztela Biden Administrazioak bultzatutako proiektuak.

- **Eskalako ekonomiak eta energia berriztagarriak izango dira hidrogeno berdearen industriaren arrakastarako giltza.** Iraganen hidrogenoa merkaturatzea ez zen bideragarria, hura ekoizteko behar den argindar kopuruagatik. Orain, ordea, proiektu eskalagarriak dira, energia berriztagarrien kostua apaldu delako eta elektrolisi teknologiak heldutasuna lortu duelako.
- **Espero da proiektu kopurua ugaritu eta proiektuen tamaina handitu egingo dela.** Gaur egun, 17 proiektutan biltzen dira planifikatutako 72 GWtatik 66. **Saudi Arabia edo Txile** bezalako herrialdeek adierazi dute funtsezko eragile izan nahi dutela energia berri honen sektorean, baina **Australiak ere iragarpen handi bat egin du eta badirudi bera izango dela hidrogeno berdearen sektoreko ekoizle nagusia**, guztira 28,4 GW baititu planifikatuta edo garatzeko bidean, energia berriztagarriak prezio apalean eskaintzen dituen merkatu batean.

Hidrogeno berdearekin lotuta iragarri diren proiektu garrantzitsuenak



Industriako lehengaien prezioak errekor historikoetara iritsi dira

Lehengaien prezioek kasu askotan errekorreko zifrak erdietsi zituzten 2021aren lehen erdian, besteak beste Txinako ekonomiaren susperraldi azkarragatik eta COVID-19aren aurkako txertaketaren hasierak merkatuetan sortutako suspertze-igurikapenengatik.

Lehengaien prezioen proiektzioa banan-banan

Materias primas	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Caucho (USD/tn)	1,857	2,293	1,757	1,864	1,766	2,081	1,981	2,015	2,067	2,100
Aluminio (USD/tn)	1,604	1,968	2,111	1,791	1,702	2,182	1,939	1,870	1,900	1,940
Cobre (US cent/lb)	220.5	279.5	296.1	272.3	279.8	413.7	432.0	451.3	379.0	386.0
Niquel (USD/lb)	4.35	4.72	5.96	6.31	6.25	7.93	8.67	9.14	8.80	8.70
Zinc (US cent/lb)	94.9	131.2	132.7	115.6	102.6	128.7	124.6	131.5	116.0	112.0
Hierro (USD/tn. métrica en seco)	58.4	71.8	69.8	93.8	108.9	180.6	164.0	150.0	140.0	125.0
Acero (USD/tn)	433.3	599.2	657.1	501.5	486.5	774.0	703.8	667.5	597.0	610.0

Prezioen gorakada (petrolioarena barne) bere horretan mantenduko da 2022aren hasierara arte, suspertze-pake "berdeen" bultzadari esker. Espero da prezioak egonkortu egingo direla 2022ko bigarren hiruhilekotik aurrera.


- **Lehengaien prezioek gorakada handia izan dute ekonomi susperraldiaren eraginez.** Txinako industria-materialen estokajeak eta industria-jarduera berreskuratu izanak metal arrunten prezioa garestitu dute. Azken hilabeteotan metal arrunten hornidura-eskasia izan da nagusi, eta horrek berekin ekarri du kobrea, aluminioa, zinka nahiz eztainuaren prezioa garestitzea, eta baita ere ibilgailu elektrikoetan erabiltzen diren metalena (adibidez paladioa). Espero da lehengaien prezioen indizea egonkortu egingo dela hirugarren lauhilekoan eta igoera metatua % 32koa izango da iaizkoaren aldean. 2022aren urte hasieran ere goranzko joerari utsiko zaio, gutxienez lehen lauhilekoan.
- **Kobrea eta aluminioaren prezioak dira azkarren igo direnak.** Auto elektrikoaren sektoreak nazioartean izan duen hazkunde azkarrak urte arteko % 48 inguruko gorakada eragingo du kobreaken prezioan –Txina delarik mineral horren kontsumitzaile garrantzitsuena–, eta behin eskaera egonkortutakoan, aurreikusten da goranzko joerari utsiko diola, prezioa % 2,8 garestituko delarik 2022an. Aluminioaren kasuan, aldiz, nahiz eta bere prezioak % 28ko urte arteko gorakada izan duen 2021ean, aurreikuspenek diote bere balioa % 11,1 murriztuko dela 2022an.
- **Petrolioaren prezioak goia jo du 2021ean.** 2021eko martxoan, Brent upelak gairitu egin zuen upeleko 70USD-ko prezioa, eta aurreikusten da 73USD-raino iritsiko dela urtearen hirugarren hiruhilekoan eta 71USD-eko prezioan egonkortuko dela 2022an. LPEE+k bere aurreikuspenari utsi dio, hau da, 2021-2022an pixkanaka handituko du ekoizpena eta, ondorioz, baita ere eskaintza, hori lagungarri izango delarik prezioak egonkortzeko. Halere, badaude prezioaren aldakortasuna handitu edo gutxitu dezaketen hainbat arrisku geopolitiko, hala nola Iranen eta AEBen balizko akordio bat, COVID-19aren aldaera berriak agertzea edo eskaera handitzea, turismoaren gorakadaren eta nazioarteko mugen irekieraren ondorioz.

Txipen eskasiak autoen ekoizpena oztopatuko du 2021eko gainerako hilabeteetan

Txip erdi-eroaleak funtsezko elementua dira autoen industrian, baina hornikuntzaren eskasiak ibilgailu berrien ekoizpena murriztu du, eta bigarren eskuko merkatuko prezioak igoarazi ditu errekorreko mailalara iristeraino. Autofabrikatzaileek aurreikusten dute mikrotxipen hornikuntzako eskasiak berdin jarraituko duela 2022ra arte.


- **Txip erdi-eroaleak oinarrizko elementua dira gaur egungo ibilgailuen** segurtasun, nabigazio eta informazio sistemarako, pantailarako eta gidari-laguntzaileentzako. Batez beste 50 mikrotxip inguru behar dira konbustiozko ibilgailu bat ekoizteko, eta ibilgailu elektriko batek horren bikoitza behar du.
- **Mikrotxipen hornikuntzako eskasiak geldiarazi egin du auto salmentaren susperraldia.** Ibilgailu-eskaerak bizi izan duen geldialdiaren ondoren, gobernuen pizgarriek eta txertaketaren ondorengo irekierak berekin ekarri dute mundu mailako autoen salmenta suspertzea. Halere, mikrotxipen eskasiak behin eta berriro eten du hornikuntza-katea, eta horrek susperraldia oztopatu du. Eskaintzaren eta eskaeraren arteko etena gero eta larriagoa da, fabrikatzaileek ez daukatelako gaitasunik ibilgailu-eskaera gorakorra asetzeko eta, horren ondorioz, ibilgailuen prezioak gora egin du.
- **Bigarren hilabetez jarraian, autoen salmentak beherantz egin du Txinan (% -12,4) eta Estatu Batuetan (% -8,9).** Nissan eta Honda markek bi zifrako beherakadak erregistratu zituzten Txinako auto-salmentetan ekainean. Bestalde, SAIC Motor-ek (automobilgintzako erraldoi txinatarrak) 500.000 unitate gutxiago ekoitzi behar izan ditu 2021eko lehen seihilekoan, eta espero du txipen fluxua bere onera itzuliko dela urtearen amaierarako. Europako fabrikatzaileek ere (Volkswagen, BMW eta Daimler) ekoizpena murriztu dute, eta horrek eragina izan du bigarren seihilekorako hitzartutako entregetan. Jaguar Land Rover enpresak kalkulatu du entregak % 50eraino murriztuko direla aurrerago eginiko aurreikuspenen aldean.
- **Bestalde, Toyotak, neurri handi batean, lortu du txipen eskasia saihestea erdi-eroalea metatuz.** Estrategia horri esker lortu du, orobat, Estatu Batuetako merkatuan errotzea eta GMren salmentak gaintzea bigarren hiruhilekoan. GMren salmenta-kuota % 15 murriztu zen. Ford-ek kalkulatu du bere irabaziak 2.500 milioi dolar txikiagoak izango direla.

Estatu Batuetan mikrotxip eskasiagatik fabrikatu ez diren ibilgailu unitateen balioespena (2021eko maiatzera arte)



Iturria: Statista

4. Perspektiba geografikoa





Europak susperraldi ekonomikoa azkartu du, etengabeko ziurgabetasunak gorabehera

Ziurgabetasun handia, mugikortasun-murrizketak eta industriako lehengaien prezio altuak gorabehera, Europako ekonomia sendo dago txertaketaren erritmoa azkartu ondoren, eta susperraldi ekonomikoan sartzen ari da.



Perspektiba
ekonomikoak

Perspektiba
geo-politikoak

- **2021eko lehen hiruhilekoko atzeraldia gainditu ostean, Europako ekonomia indarrez haziko da urtearen bigarren erdian.** Murrizketak bukatzearekin berehala piztu da zerbitzu sektoreko eta industriako jarduera, baina bere ekoizpen-gaitasunak mugak ditu oraindik mikrotxipak bezalako hainbat material hornitzeko dauden arazoengatik. Europa osoa pandemia aurreko mailetara itzuliko da 2022an, baina Estatu Batuak baino astiroago, agerian utziz Europak baduela menpekotasun bat bere esportazioen eskaera globalarekiko. Asia eta Estatu Batuak azkar suspertzen badira, horrek lagundu egingo dio Europari bera ere suspertzen.
- **Susperraldi ekonomikorako dagoen arrisku nagusia da 2021aren erditik aurrera murrizketak berriro ezar litezkeela.** Batez beste, EBko biztanleriaren % 55ak txertoaren dosi bat jaso du gutxienez, eta horrek bidea ematen du pentsatzeko biztanleriaren gehiengoa txertatuta egongo dela urte amaierarako. Halere, murrizketak itzuliko ote den beldurra bizirik dago oraindik. Turkia da desegonkortasun ekonomikoak jasateko arrisku gehien daukan herrialdea, bere txanponaren egoera delikatuagatik.
- **Zerga-pizgarriek eta moneta-politikako pizgarriek bultzatuko dute susperraldi ekonomikoa.** Europako 2021-27 suspertze-funtsa 2021eko hirugarren hiruhilekokoan hasiko da iragarritako 750.000 milioi euroak banatzen, eta orduan hasiko da nabaritzen funtsen inpaktua, efektu handiena 2022an helduko da baina.
- **AEBekiko harremanak hobetu egingo dira, baina Txinarekiko loturak zailak izango dira.** Merkataritza arloko tentsioak lasaitu egin dira Biden Administrazioa AEBetako gobernura iritsi denetik; adibidez, akordioak lotu dira altzairuaren eta aluminioaren inguruko gatazka konpontzeko eta lankidetzeta sendotu da hainbat arlotan, esaterako klima aldaketarenean. Espero da horrek guztiak ondorioak izango dituela azaroan egingo den COP26 gailurrean. Merkataritza arloan eta inbertsioetan Txinarekiko harremanak hobetzeko ahaleginak moteldu egingo dira, Comprehensive Agreement on Investment (CAI) erakundea ez delako igaroko Europako Parlamentutik 2021ean, eta agian ezta 2022an ere, hots, Frantziak EBren txandakako presidentetza hartzen duenean.

EUROPA

BPGaren bilakaera



Informazio gehiagorako, klikatu azpimarratuta dauden testuetako estekak.
Basque Trade & Investment-en analisia oinarritzat hartuta nazioarteko iturrietako informazioa.




Estatu Batuetan susperraldirako aurreikuspenek hobera egin duten bitartean, Latinoamerikak bide luzea dauka oraindik suspertzeko


Estatu Batuen susperraldia espero zena baino hobea da, eta orain ez dago argi beharrezkoa izango ote den Biden-ek iragarritako estimulu-planak martxan jartzea; bien bitartean, ia Latinoamerika osoko txertaketa-prozesuaren abiadura geldoak susperraldiaren erritmoa moteltzen du.

AMERIKA

BPGaren bilakaera



AEBak LATINOAMERIKA



- **Bi abiadurako susperraldia inflazioaren eta zorraren mehatxuekin.** Estatu Batuek pandemia-aurreko BPGa berreskuratuko dute 2021aren amaierarako, espero baita BPGaren hazkundera % 6,4koa izango dela (aurreikusitakoa baino hobea). Halere, kontsumo-eskaera handitzeak kezka sortu du, posible delako inflazioak gora egitea eta horrek susperraldia etetea. Latinoamerikak bide luzea dauka oraindik suspertzeko, ustea baita ez dela iritsiko puntu horretara 2023a baino lehen, zorra izango delarik kezka nagusia.
- **Estatu Batuetako biztanleriaren % 50 guztiz txertatuta dago, baina Covid-19ko kasuen gorakadak arriskuan jarri du Latinoamerikako susperraldia.** Infekzio-olatu sinkronizatu batek arriskuan jarri du Latinoamerikako susperraldi hasiberria. Nahiz eta AEBetako datuak onak izan, txertaketaren erritmoa nabarmen jaitsi da. Bestalde, Latinoamerika ez da iritsiko immunizazio mailara (biztanleriaren % 60-70) 2022aren erdira arte, salbuespenak salbuespen (adibidez, Txile eta Uruguai dagoeneko iritsi dira % 60ra).
- **Estatu Batuetako Kongresuak apaldu egingo du Bidenen estimulu-plana.** Susperraldi azkarraren ondorioz, orain zalantzan jarri da premiazkoa ote den iragarritako suspertze-pakete osoa onartzea (5 bilioi USD). Halere, espero da azpiegiturak garatzeko paketearen amaierako konpromisoa 1,5 bilioi USD ingurukoa izango dela.
- **Latinoamerikak oreka mantendu behar du Estatu Batuen eta Txinaren artean.** Latinoamerikako Estatuak eszenatoki zail batean daude bi potentzien arteko oreka mantendu beharrez. Herrialde asko saiatuko dira euren lankidetzaren indartzen Biden Administrazioarekin, adibidez segurtasun edo migrazio arloetan, baina arlo ekonomikoan, AEBek ez dute interes handirik euren kontinenteko beste bazkideekin, eta laguntza finantzario gutxi banatu ditu. Bestalde, azken urteotan Txinak modu esponentzian handitu du Latinoamerikan daukan eragina, eta dagoeneko bazkide komertzial nagusia da Estatu askotan. 5G teknologiaren garapenak zaildu egingo ditu AEBekiko harremanak, herrialde gutxi egingo baitira prest Txinaren parte-hartzea blokeatzeko zabalkunde horretan.

Perspektiba ekonomikoak

Perspektiba geo-politikoak






Afrika susperraldi sigi-sagatsu batean sartuta dago, eta Golkoko herrialdeek edo Israelek biztanleria osoa txertatu dute honezkero

Presio fiskalak eta zorpetze altuak are zaurgarriago bihurtu dute Afrika, bere ekonomiak eta gobernuak desegonkortu ditzakeen edozein egoera ekonomikoren edo pandemiaren beste agerraldi baten aurrean. Txina gero eta garrantzitsuago bihurtu da txerto hornitzaile bezala

Afrika eta Ekialde Ertaina

BPGaren bilakaera



- **Afrika ez da guztiz berroneratuko 2021ean.** Pandemiak eragin duen zorpetzearen ondorioz, zenbait herrialdek euren presio fiskala handitu behar izan dute ekonomikoki erabat suspertu baino lehen, eta horrek esan nahi du inbertsio publikoa gelditu edo moteldu egingo dela herrialde horietan. *Commodity*-en prezio altuek eta moneta-baldintza laxoek ordainketa-balantza zaurgarrienak arindu dituzte. Halere, herrialde askok NDFren laguntza beharko dute epe laburreko zorrak ordaintzeko (adibidez, Kenyak edo Angolak). Nahiz eta petrolioaren prezioak gora egin duen, horrek ez du eragin nabarmenik izan petroliotik irabaziak ateratzen dituzten herrialdeetan eta ez du askorik arindu gobernuak pandemiaren kausaz ezarria duten **presio fiskala**.

- **Txertaketaren abiadura desberdinak.** Txertaketa oso astiro dabil Afrikan. Nigerian eta Hegoafrikan kasuak ugaritu dira aldaera desberdinak agertu direnean, eta horren ondorioz berriro aplikatu beharko dira distantziak zaintzeko neurriak eta moteldu egingo da susperraldia. Bestalde, Golkoko herrialdeek eta Israelek nahikoa finantza- eta erakunde-gaitasun izan dute txerto-partida handiak ziurtatzeko, eta hala, munduko lehenak izan dira euren populazio osoa txertatzen. Halere, osasun- eta erakunde-azpiegitura ahulenak dituzten herrialdeek borrokan jarraitzen dute pandemiaren aurka, tarteka mugikortasun murrizketak aktibatuz, epe laburreko kalteak sortzen dizkietenak euren ekonomiari.

- **Ekialde Ertainak geo-politikako puntu bero bat izaten jarraitzen du.** Populazio gaztea dauka, ekonomikoki zigortua eta politikoki zanpatua, eta pandemiak handitu egin du jende horren ezinegona, Afrikako eta Ekialde Ertaineko hainbat Estatu desegonkortzeko arriskuan jartzeraino. Iran eta Israelen arteko etsaigoan tentsioa noiznahi has daiteke larritzen. Aldiz, kontrakoa gertatzen da Saudi Arabiaren eta Iranen arteko harremanetan, nahiz eta Yemengo gatazkak piztuta jarraitzen duen oraindik.


- **Bidenen presidentetzan ere AEBek jarraituko dute euren aliatuak presionatzen murriztu dezaten Txinarekiko duten esposizio ekonomikoa.** Halere, Txinak inplikazio handia izaten jarraituko du, batez ere azpiegituren garapenean, osasun arloan, oinarriko industrian edo eraikuntzan, eta Estatu askoren lankide izango da, bai AEBen aliatuena eta baita ere AEBen aurkakoak diren merkatuak dituztenena (adibidez, iran edo Aljeria). [Informazio gehiagorako, klikatu azpimarratuta dauden testuetako estekak.](#)

[Basque Trade & Investment-en analisia ,oinarritzat hartuta nazioarteko iturrietako informazioa.](#)

Perspektiba ekonomikoa

Perspektiba geo-politikoak

5. Perspektiba sektoriala



PERSPEKTIBA SEKTORIALAK



Automozioa

- Ibilgailu arinen salmenten urte arteko igoera % 36,2koa izan zen maiatzean; datu esanguratsua da hori, COVID-19ak izan dituen ondorioak gorabehera.
- Salmentak % 14 handitu ziren ekainean, Txina kontuan hartu gabe.



Aeronautika

- Espero da Airbus krisi aurreko mailara itzuliko dela 2023 eta 2025 bitartean, batez ere pasabide bakarreko hegazkinengatik. Ekainean United Airlines-ek eskaera masibo bat egin zuen 737 MAX modeloaren 200 aldaera eskuratzeko, eta horrek nabarmen hobetu ditu Boing-en aurreikuspenak. Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko defentsa merkatuek gorakada nabarmena izan dute horren ondorioz.
- Mendebaldean kezkatuta daude hornikuntza-kateagatik, COVID-19ak kaltetuta utzi baitu eta horrek berekin ekarri du AIZ, azpikontratazioa eta deslokalizazioa zorrotzago zaintzea.



Farmazia-Osasuna

- 2020an zenbait ekiporen (adibidez arnasgailuak) erosketak izugarri azkartu ziren, eta ondoren eskaerak behera egin dute 2021ean.
- Ospitaleetan COVID-19a detektatzeko gero eta proba gutxiago egiten dira, txertaketa-programa arrakastatsuek dituzten herrialdeetan ospitaleratze gutxiago daudelako; ondorioz, probak ospitaleetatik kanpo egiten dira, indar gehiago ematen zaiolarik gaitza zaintzeari eta arakatzeari egiteari.



Energia

- Herrialde gehienetan argindarra berroneratzen joan da pixkanaka, eta orain eskaera 2019ko mailaren inguruan dago. Txina eta India bezalako herrialdeek dagoeneko gainditu dute 2019ko maila.
- Energia berriztagarriak sortzeko gaitasuna 2019an baino % 4 handiagoa izango da 2020an.




Merkataritza eta jatetxeak

- Pandemiak inpaktu handia izan du kontsumo-ohituretan, batez ere elikaduran, eta orain pertsona nagusi gehiago hasi dira erosketak online egiten.
- Etxetik lan egiteak eta osasun arloko segurtasunaren inguruko kezkek jendea hiriguneetatik ateratu du eta inguruko denda eta parke komertzialetara eraman du. Joera hori nagusi izango da ziurrenik 2022an, eta higiezin enpresek eta jabeek finantza-presio handia izango dute horregatik.

Datuak: GlobalData COVID-19 Executive Briefing

PERSPEKTIBA SEKTORIALAK



Teknologiak eta telekomunikazioak

- Teknologia, komunikabideetako eta telekomunikazioko enpresa nagusiek pandemiaren eragina nozitu dute 2020az geroztik, batez ere IT zerbitzuek.
- Operatzaileek CAPEXa aurreratu zuten konektagarritasun baldintza kritikoak babesteko eta berriro hasi dira ezartzen 5Ga, Edge Computing-a eta beste ekimen batzuk, aldi batean alboratuak edo motelduak egon direnak.



Bidaiek eta turismoa

- Txerto-pasaporteak indarra hartzen ari dira bidaien eta turismoaren sektorea gaztetzeko bitarteko bezala. COVID-19arekin erlazionatutako informazioa QR kode batean bilduko da eta hori EB osoan erabili ahal izango da (herrialdean sartzeko baldintzen arabera).
- Barne-turismoak jarraitzen du arreta handia sortzen, eta bere prezioak asko igo dira zenbait merkatutan. Bidaiatzeko muga eta murrizketek eta zenbait merkatutako txertaketa-programen erritmo geldoak erakargarriagoa bihurtu dute barne-turismoa.



Oil & Gas

- Azken hiru hilabeteetan petrolio enpresa handiak berriro hasi dira dirua irabazten petrolioaren prezioaren gorakadagatik eta enpresen helburuak berregokitu ondoren.
- Kapitalaren doitze zorrotzak bere eragina izango du hidrokarburuen inguruko ikerketarako baliabide batzuk garatzeko orduan, eta epe luzera lasta bat izango da sektoreko perspektibentzat, batez ere petrolio eta gas eskaera pandemia aurreko mailetara itzultzen bada.



Eraikuntza

- Zerga-pizgarriak gorabehera, jarduera ekonomikoan dagoen nahasmenduak eragin handia izango du eraikuntza sektorean: inbertsioak behera egingo du seguruenik, eta planifikatutako proiektuak atzean edo bertan behera geratuko dira.




Meatzaritza

- Espero da azpiegituren eraikuntzako inbertsioa handitu egingo dela eta horrek material batzuen prezioa garestituko duela (esaterako burdina, kobrea eta oinarritzko beste zenbait metalena). Kobrea asko garestitu da 2021aren urte hasieratik, nahiz eta ekainean apur bat jaitsi zen 10.000 dolar/tonako prezioa gainditu ondoren; aldiz, burdinaren prezioak 200 dolar/tonako prezioaren gainetik eutsi zion ekainean.
- Pandemiaren ondoriozko hornikuntza-etenezko prezioen gorakada eragin zuten 2020an, baina prezio horiek pixkanaka egonkortu egingo dira gero eta jende gehiago txertatzen den heinean. Lehengai gehienek kasuan, eskaintzaren gorakadak konpentsatuko du eskaeraren igoera.

Datuak: GlobalData COVID-19 Executive Briefing


I. eranskina. Makro datuak






Industriako PMI indizea

Ekoizpen-balioen gorakada (**50 puntu baino gehiago: hedapena**) Amerikako kontinentean. Asiaren dezelerazio handia.




Langabezia

Langabezia-tasen gorakada orokortua, bereziki azpimarratuz Afrika eta Asiako herrialdeak; Nigeria (% 6,2) eta Indiako (% 2,8) gorakadek ondorioak izan dituzte aldaketa horietan.



Inflazio metatua

Inflazioa nabarmen hazi da Europan eta Asian.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



**BasqueTrade
& Investment**
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

